Usurbilgo Udala

SANTUENEAKO “GURE ELKARTEA” JUBILATUEN LOKALEKO TABERNAREN KUDEAKETA ESLEITZEKO PROZEDURA IREKIA ADMINISTRAZIO KONTRATU BEREZIA ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK
- Presazko izapidetzea-

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. KONTRATUAREN HELBURUA ETA LEGE ERREGIMENA

Baldintza plegu honek Santuenea 11-n kokaturiko Usurbilgo Udaleko “GURE ELKARTEA” Jubilatuen lokaleko taberna eta bertan dauden elementu eta instalazioen erabilpena eta zerbitzu kudeaketa arautuko ditu, kontratuaren esleipena eta exekuzioa.

CPV KODEA: 55330000-2- kafetegi zerbitzuak (nagusia) eta 98341130-5 atezaintza zerbitzuak

Kontratu honen xedea, Usurbilgo Udalaren helburu eta zereginekin lotuta dago eta zuzenean eta berehala Udal honen eskumen zehatzekoa den helburu publiko bat betetzen du.

Beraz, sinatuko den kontratua izaera administratibo berezikoa izango da, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoaren Kontratu Legearen (aurrerantzean SPKL) 25.1.b) artikuluan xedatua dagoenaren arabera eta, lehenengo eta behin, haren arau espezifikoak ezarriko zaizkio, baldintza plegu hauek barne eta, horretan aurrikusi gabekoan, indarrean dagoen kontratazio administratiboari buruzko legedia eta beste toki legediaren arabera.

Administrazioko bideari amaiera emango dioten erabakien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango zaio, nahiz eta aldeek erabaki dezaketen beren auzi-gorabeherak arbitraje bidez konpontzea, indarrean den legeriaren zahaztua dagoenaren arabera. Horrez gain aipatutako erabakien aurka Berraztertze errekutzoa jarri ahal izango da erabakia hartu duen organoaren aurrean.

Kontratuaren arduraduna Gizarte ongizate saileko teknikaria izango da.

2. KONTRATUAREN FINANTZIAZIOA

Esleipendunaren diru sarrerak tabernaren ustiapenetik eratortzen diren kobraketek osatuko dute.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena **urtebetekoa** izango da, hitzarmena izenpetzen den egunetik kontatzen hasita. Hala ere, kontratuaren indarraldia urtez urte luzatu ahal izango da, guztira beste 3 urte gehiago, orokorrean 4 urte bete arte. Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta aurreabisua kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez ere bi hilabete lehenago egiten bada.

Kontratazio Organoak berariaz hori erabakiko balu baldintza plegu honetan aurreikusitako jardunbidea jarraituko da: Idazkaritza, Kontu-hartzailetza eta Gizarte Ongizateko udal zerbitzu teknikoetako arduradunek zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipen-proposamenari buruzko txostenak egingo dituzte, bakoitzari dagokion arloan eta Kontratazio-organoak luzapenari buruzko erabakia hartuko du.

Kontratuaren epea amaituz gero, Usurbilgo udalak berreskuratuko du objektu den lokala bere instalazioak eta ekipamendu guztiarekin. Edonola ere, eta Udalak egokitzat jotzen badu, adjudikaziodunak zerbitzua eskaintzen jarraitu beharko du bere garaian adjudikatzen duten kontratu berria hasi arte SPKL-ko 29.4 artikuluko baldintzetan.

4.- KANONA, KONTRATUAREN AURREKONTU ESTIMATUA ETA PREZIO EGUNERAKETA:

Esleipendunak Udalari hilero ordaindu beharreko gutxieneko kanona: 25€/ hilean BEZ gabe izango da.%21-eko BEZ-a atxikituaz 5,25€, 30,25€ Euro hileko izango da.

Kontratuaren aurrekontu estimatua SPKL-ko 101.11 atikuluak d) sailak ematen dituen irizpideen arabera 1.200 € da.

Esleipendunak Usurbilgo Udalari hurrengo hilabeteko hamargarren eguna baino lehen ordainduko dio kanona.

Tabernaren ustiapenaren etekin ekonomikoak esleipendunaren gain eta bere galorde izango dira. Usurbilgo Udalak ez du esku hartuko, inolako eratan, ustiapenaren finantzaketan; eta ez dio esleipendunari gutxieneko diru-sarrera edo etekinik ere ziurtatuko, ez eta inolako dirulaguntzarik emango ere.

II. KONTRATUAREN ESLEIPENA

5. ESLEIPEN ERA, BETEKIZUNAK (KAUDIMEN TEKNIKOA) ETA PROZEDURA

5.1.- Esleipendunak bete beharreko baldintzak Usurbilgo udalaren hizkuntza politika

Usurbilgo Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, langileek Usurbilgo Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila (ahozko partea) egiaztatu beharko dute jardueran parte hartuko duten langileek. Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira: - Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo, - Usurbilgo Udalak erabakitako froga egitea.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta, zerbitzu hizkuntza euskara izango da. Usurbilgo Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan…) euskaraz egingo da. Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazio

idatziak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira eta, behar izanez gero, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazkoari lehentasuna emanez. Hala ere, kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

Hizkuntza paisaia. Errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira.

Harremanak administrazioarekin Enpresa adjudikazio-hartzaileak Usurbilgo Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Era berean, udaletik jasotzen diren idatziak euskaraz jasoko ditu enpresa adjudikazio-hartzaileak.

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Usurbilgo Udaleko Gizarte Ongizate zerbitzuak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena. Baldintza hauek ezinbesteko baldintzak dira eta hauek ez betetzeak kontratua amaitzeko aukera emango du SPKLaren 211.1 f) atalak ezarritakoarekin bat.

5.2.- Bestelako Baldintzak

- Elikagaien manipulatzaile titulua izan behar dute, legearen arabera horretara behartuta daudenek.

- Usurbilgo Udalak onartu duen baldintza teknikoen pleguan agertzen diren bestelakoak betetzea zerbitzua eskaintzerakoan.

5.3.- Esleipenerako prozedura eta era

Kontratuaren esleipena prozedura ireki bidez izapidetuko da, SPKLren 156 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Kasu honetan, presazko izapidetzez egingo da, txosten juridikoan arrazoitzen den moduan.

5.4.- Esleipen irizpideak

Lizitaziorako aurkeztu dituzten B eta C Gutun-azal elektronikoen dokumentuak baloratuko dira esleipena egin ahal izateko. Esleipenerako honako irizpide hauek hartuko dira kontutan, ondoren zehazten diren eran neurtuz:

IRIZPIDE AUTOMATIKOAK (C gutun-azala). Objetiboak (65 puntu)

Kanona, gehienez 25 puntu.

25€tik-35€tara kanonaren eskaintza igotzeagatik	10 puntu
25€tik-50€tara kanonaren eskaintza igotzeagatik	25 puntu

Formakuntza, gehienez 10 puntu.

Sukaldaritzan edo ostalaritzan formakuntza izatea (50- 289 ordu)	5 puntu
Sukaldaritzan edo ostalaritzan formakuntza 290 ordukoa izatea (edo lehen mailako ziurtagiria)	10 puntu

Eguneko menua eskeintzea, gehienez 20 puntu.

Eguneko menua eskeiniz gero, jubilatuei %15 eko deskontua aplikatu behar zaienez ezinbestean, horri %5 eko deskontua gehituz gero (%20 guztira)	10 puntu
Eguneko menua eskeiniz gero, jubilatuei %15 eko deskontua aplikatu behar zaienez ezinbestean, horri %10 eko deskontua gehituz gero (%25 guztira)	15 puntu
Eguneko menua, plater konbinatuak, bokadilloak gazteei (gazte-txartela) %5 merkeago eskeintzeagatik*	5 puntu

*3.honetan gehitutako puntuak eskuratzeko (gazteei beherapena), 1. edo 2n eskaintza egitea ezinbestekoa da.

Opor egunetan (22 dira urte osoan) taberna irekita izateagatik, gehienez 10 puntu.

5 egun gehiagotan irekita mantentzeagatik	5 puntu
10 egun gehiagotan irekita mantentzeagatik	10 puntu

IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK, SUBJETIBOAK (B gutun-azala) 45 puntu

i.

Garbiketa plana, gehienez 11 puntu.

Garbiketa planak garbiketa bere osotasunean kontuan hartu beharko du:

Egin beharreko zeregin guztiak	3 puntu
Eginbehar/zeregin bakoitzeko maiztasuna (egunero, astero, hilabetero, hiruhilabetero...) kalendarizatua	3 puntu
Garbiketa egin izanaren jarraipen mekanismoak	3 puntu
Garbiketara begira gehigarriak edo apartekoak	2 puntu

Garbiketa planaren gutxienezkoa betebeharretan esleipendunak bete beharrekoa da.

Zerbitzuaren diseinua eta antolakuntza memoria, gehienez 24 puntu.

Emango diren zerbitzuen diseinu eta antolakuntza plana. Baita betetzen denaren jarraipen proposamena	9 puntu
Baliabide pertsonale/n inguruko proposamena eta horien antolakuntzaren ingurukoak	3 puntu
Santuenea auzora egokitutako proposamena izatea	7 puntu
Santuenea auzoan Gure Elkartea jubilatu elkarteko taberna denez, jubilatuekin elkarlana eta haiek kontuan hartzekoen nondik norakoak	5 puntu

Ustiaketa proposamena, gehienez 10 puntu.

Ustiapen proposamena, taberna eta jantokia (menuak) ADI! Txosten honek ezin izango ditu jubilatu edo gazteei egindako deskontuak aipatu **(irizpide objetiboei buruzko informazioa ezin da aipatu irizpide subjetiboetako txostenetan).** Horrelakorik egiten duten eskaintzek lizitaziotik kanpo geldituko dira.	7 puntu
Produktuen kalitatea eta bertako produktuak izatea (jatorri lokala)	3 puntu

6. BERMEAK

Puntu gehien lortu duen esleipendunak betiko bermea jarri beharko du hau jakinarazten zaion biharamunetik hasi eta hurrengo hamar lanegunetan.

Behin betiko bermea honakoa izango da: kontratuaren indarraldi guztiko (luzapenak barne) hilero ordaindu beharreko kanonen batuketaren kopuruaren % 10a (BEZ-a kontuan izan gabe).

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 111. artilukuan arau orokor giza ezarritako %5eko bermea %10era igo da kontratuaren prezio kontuan izanik, hala badagokio, bermea bere eginkizun legela bete dezan.

Bermea itzuliko da, 9/2017 Kontratu Legeak xedatutakoaren arabera, kontratua bukatzen denetik hilabete bateko berme-aldia bukatu eta esleipendunak kontratuz hartu dituen betebehar guztiak betetakoan.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Harremanetarako:

Joxe Martin Sagardia plaza, z/g – 20170 Usurbil

Tel. 943 371951 / Faxa 943 368167
Helbide elektronikoa: kontratazioa@usurbil.eus
Kontratatzailearen Profila: www.usurbil.eus

7.1.- Epea

Pleguak Udal kontratatzaile profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 8 EGUN NATURALEKO epearen barnean (23:59ak arte).

7.2.- Modua

Proposamenak bi modutara aurkeztu ahal izango dira:

1.- Modu elektronikoan

Hiru artxibo elektroniko (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte.

Proposamenak modu elektronikoan aurkezteko beharrezkoak diren informazio eta zehaztapen teknikoak, dataren zifratzea eta baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman (www.contratacion.euskadi.eus) daude.

Lizitazio elektronikoaren erabiltzaileentzako Arreta Zentroa: 945016298 (7:45 - 20:00) bitartean.

Interneteko helbidea: www.euskadi.eus

Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

2.- Paperean

Lehiatzaileek HIRU kartazal itxi (A, B eta C) aurkeztu behar dituzte.

Hauetako bakoitzean LEHIAKETA IREKIAREN BITARTEZ, **"SANTUENEA TABERNAREN ERABILPENA ETA KUDEAKETA KONTRATUA ESLEITZEKO LIZITAZIO PROZESUA "** esaldia idatzi beharko da.

Kartazal bakoitzean, proposamena egiten duenaren izen-abizenak eta sinadura ere azaldu beharko da, eta kartazal guztiak itxita aurkeztu beharko dira.

Aurkezteko lekua:

a) Leihatilan, Udal Errejistroan (Joxe Martin Sagardia Plaza, z/g, 20.170 Usurbil), lanegunetan eta 8:00etatik 14:30etara.

b) Posta ziurtatuaren bidez, honako helbide honetara zuzenduta: "USURBILGO UDALETXEA, Joxe Martin Sagardia Plaza, z/g, 20.170 Usurbil. Erreferentzia: (Kontratuaren xedea zehaztu)". Bidaltzaileak egiaztatu egin beharko du bidaltze hori Posta bulegoan egin duen data, eta egun berean posta elektronikoaren bidez (kontratazioa@usurbil.eus) iragarri beharko dio kontratazio-organoari eskaintza bidali duela. Bi baldintza horiek bete ezean, proposamena ez da onarturko, proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotzen bada. Hala ere, zehaztutako egun horren ondoren hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, proposamen hori ez da inola ere onartuko.

8. PROPOSAMENEN EDUKIA

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak 3 gutunetan aurkeztuko dira:

"A" GUTUNA
Honako dokumentu hau jasoko da bertan: Erantzukizunpeko adierazpena, plegu honekin batera doana I. eranskin gisa.

Enpresa lizitatzaileak eskatutako dokumentuak dituela eta baliozkoak direla egiaztatu beharko du esleipendun gisa proposatuz gero edo horretarako eskaera eginez gero (prozeduraren edozein unetan haren garapen egokia bermatzeko beharrezkoa denean).

"B" GUTUNA

Irizpide EZ AUTOMATIKOEI dagokien informazioa barneratuko du, hots, Garbiketa Plana, Zerbitzuaren Diseinua eta Antolakuntza Memoria eta Ustiaketa Proposamena.

OHARRA: Adi! B artxibo honetan ezin da C artxiboan jaso behar den informaziorik aipatu.

“C” GUTUNA

Irizpide AUTOMATIKOEI dagokien informazioa barneratuko du. Horretarako, lizitatzaileek II eranskineko eredua bete eta horiek ziurtatzen dituzten agiriak ere sartu beharko dituzte. Ikasketak frogatzeko erakunde ofizialek, ikastegi edo unibertsitateek igorritako tituluen kopiak nahiko izango dira.

9.DOKUMENTUEN KALIFIKAZIOA ETA PROPOSAMENEN IREKIERA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, ondorengo jarduketak egingo dira:

“A” GUTUN-AZALA irekitzea.

A kartazala aztertuko da, aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Beharrezkoa izanez gero, mahaiak gehienez ere 3 egun naturaleko epea eskainiko du akatsak zuzentzeko.

“B” GUTUN-AZALA irekitzea.

A gutun-azaleko agiriak baloratu ondoren, B gutun-azala irekiko da kontratatzailearen profilean adierazten diren egun eta orduan, eta jendaurrean streaming bidez eskainiko da plataformaren bidez. Lizitazioa streaming-en emango den esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

B gutun-azala ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa helaraziko dio hori baloratzeko ardura duen teknikariari, eta horrek balorazio-txostena egin beharko du C gutun-azala ireki aurretik.

Kontratazio Mahaiak horrela nahi izanez gero A eta B Gutun-azalen irekiera egun berdinean bate bestearen ondoren egingo dira.

“C” GUTUN-AZALA irekitzea.

B gutun-azaleko agiriak baloratu ondoren jakinaraziko da iritzi-balioetan oinarritutako irizpideengatik eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa. Ondoren C gutun-azala irekiko da kontratatzailearen profilean adierazten diren egun eta orduan, eta jendaurrean streaming bidez eskainiko da plataformaren bidez. Lizitazioa streaming-en emango den esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

10. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

B eta C kartazaletan aurkeztutako dokumentazioaren inguruan ezarritako puntuazioaren arabera organo eskudunak eskaintza onenaren proposamena zein den zehaztuko du. Hau lizitatzaileari jakinarazi eta jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, hamar laneguneko epean, hurrengoak bete beharko ditu:

0.- Behin betiko bermea jarri.

1.- Pertsona fisikoaren nortasun fisikoa edo enpresa lizitatzaileen nortasun juridikoa egiaztatzen duten dokumentuak eta, hala badagokio, haien ordezkaritza.

Modu hauetako batean egiaztatuko da nortasun juridikoa:

a) Proposamena aurkezten duen pertsonaren NAN bere izenean edo ahaldun moduan, edo haren kopia konpultsatua.

b) Lizitatzaileak norbere izenean ez diharduenean edo hura sozietate bat edo pertsona juridikoa denean, ahalmen nahikoa ordezkatzen duen pertsona edo entitatea ordezkatzeko egiaztatuko du, dagokion eskrituraren bidez. Ahalmen eskritura hori behar bezala inskribatu behar da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan, edo norbere ordez eginez gero, dokumentu publikoan.

c) Eskaintza elkarte edo pertsona juridiko baten izenean aurkezten denean, eskaintzarekin batera, elkartearen eratze eskrituren edo elkartearen estatutuen aldatze kopia konpultsatua.

d) Eskaintza elkarte talde baten izenean aurkezten denean, gainera, aurkeztu beharko da dokumentu bat elkarte bakoitzeko ordezkari batek sinatua, adieraziz Elkarteen Denbora Baterako Batasunean elkarte bakoitzak duen partehartzea, eta adierazi kontratuak iraun bitartean elkarte guztien izenean Administrazioarekin ordezkaritza osoa izango duen pertsonaren izena, era solidarioan.

2.- Elikagaien manipulatzaile titulua aurkeztu behar dute, legearen arabera horrelakorik izatera behartuta daudenek.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta gizarte segurantzakoak betetzen dituela egiaztatzea, erakunde aginpidedunek egindako ziurtagirien bidez. Bestelako kasuan, lehiatzaileek egin dezakete gai honi buruzko zinpeko aitorpena, eta zerbitzuaren kudeaketa esleituko balitzaie, kontratua formalizatu aurretik aurkeztu beharko dituzte aurretik esandako ziurtagiriak. Udalak, pertsona horrek udalari egin beharreko ordainketa guztiak egin dizkiola frogatuko du. Hala ez bada, lehiaketatik kanpo geratuko da.

4.- Adierazpen erantzulea, SPKL-ko 85. artikuluak arautzen dituen debeku eta ezgaitasunetan ez daudela sartuta aitortuz.

5.- Erantzukizun Zibilaren polizaren formalizazioa edo kontratatu dela dioen ziurtagiria. Poliza honek pertsonei, nahiz instalazioei sorturiko kalteak babestu beharko ditu, hilketa ere bai eta gutxienez **150.000 €-koa** izango da.

6.- Lizitatzaileak indarrean dauden xedapenek ezarritako laneko segurtasuneko eta osasuneko eta laneko arriskuen prebentzioko eskakizunak betetzen dituela adierazten duen erantzukizunpeko aitorpena.

Dokumentu horiek modu egokian eta osotasunez aurkezten direnean esleipena egingo da. Esleipena jakinarazten zaion biharamunetik kontatzen hasita hamabost laneguneko epean aurkeztu beharko du esleipendunak udal bulegoetara kontratua formalizatzera.

Xedatutako dokumentazioa ezarritako epeetan aurkeztuko ez balu, klasifikazio ordenan hurrengoa dagoen kontratistari dokumentuok aurkezteko esango zaio eta, bere kasuan, honen alde egingo da esleipena.

Kontratistari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua formalizatuko ez balitz, Udalak kontratu horren amaiera erabaki ahal izango du, SPKLak xedatutakoaren arabera.

11.KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua kontratistaren kontura gauzatuko da eta indemnizatu beharko ditu bere zerbitzuaren ondorioz hirugarrenei sortzen dizkien kalteak, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta 1098/2001 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Nolanahi ere, Udalak onarturiko Plegu honetan xedatutako klausulei, berari atxikirik dagozkion zehaztapen teknikoei, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legean xedatutakoari eta gainontzeko arauei zorrozki jarraiki emango da zerbitzua eta, hau guztia interpretatuz, udal zerbitzu teknikoak kontratistari emango lizkiokeen aginduak beteaz.

12.ERREKLAMAZIO LIBURUA

Esleipedunak, Udalak bisaturiko Erreklamazio-Liburua eduki beharko du erabiltzaileen eskueran, horiek, egokiak deritzeten erreklamazioak egin ahal izango dituztelarik.

III. KONTRATUA BETETZEA

13. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Esleipendunaren betebeharrak izango dira eta ondorioz, Usurbilgo udalaren eskubideak, lizitazio honen gai den zerbitzuaren eskaintza eta dotazio zintzoari dagozkionak, orokorrean, eta zehazki, ondorengoak:

1.- Esleipendunak, honako plegu honetan ete kontratazio prozesu honetako beste edozein dokumentutan, plegu teknikoak barne, ezarritako ezaugarriei eta Usurbilgo udalak zerbitzu-ematea ikusirik sartu nahiko lituzkeenei estuki lotuz bete eta antolatu beharko du zerbitzua. Esleipendunak gainera indarrean dagoen arautegietan aurreikusten diren gainontzeko baldintzak ere errespetatu beharko ditu.

2.- Esleipendunak taberna baten berezko zerbitzuak eskaini behar ditu edariak zerbitzatzea (alkoholdunak eta alkoholik gabeak), pintxoak eta/edo anoak (razioak). Jangela zerbitzua eskaini ahal izango du ere, menu bakun eta gutxi batzuk.

3. Esleipendunak zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren produktuen eta gaien salmentaz arduratu beharko du. Hauen kalitatearen gaineko erantzunkizuna izango du.

4.- Esleipendunak kontrataturiko lanak arreta osoarekin burutu behar ditu, erabiltzaileei zerbitzua bermatuz eta nazionalitate, arraza, sexu identitatea eta/edo beste edozein ezaugarrigatik diskriminatu gabe eta hauen eskubideak errespetatuaz: tratu zuzena, adierazpen askatasuna etab.

5.-Kontratua esleipendunaren arriskuz eta zoriz gauzatuko da. Esleipenduna, zerbitzua garatzen dituen lanen eta eskainitako prestazio eta zerbitzuen erantzule izango da eta baita izaten diren gabezien, akatsen, erabilitako metodo desegoki edota erabaki okerren ondorioz gertatutakoaren erantzule ere.

6.- Udalak ez du inolako erantzunkizun penalik, zibilik edo beste edozein motatakorik izango esleipendunak hornitzaileei ordainketak egiten ez badizkio, hornitutako kontsumo produktuen ondorioz toxikazioak gertatzen badira eta/edo beste edozein arrazoi dela medio, ezta hirugarren batzuek instalazioetan egin ditzazketen hondamen edo lapurretena ere.

7.- Esleipendunak ingurumenarekin errespetuzko zerbitzu eskaintza eman behar du. Horretarako, kontuan hartu beharko ditu naturaren eta ingurumenaren balioak lehiaketako xede diren instalazioetan, batez ere hondakinekin atez ateko bilketa eta energi kontsumoen arrazionalizazioari dagokionez.

8.- Kanona hilero ordaintzea baldintza plegu hauetan xedaturiko moduan.

9.- Zerbitzua eskaintzea, aurrikusitako iraupenez, sor daitezkeen ezustekoetan azkartasunez eta eraginkortasunez erantzunez.

10.- Esleipendunak zerbitzua herritar guztientzat zabalik edukiko du, Gure Elkartea Jubilatuen elkarteko bazkide diren ala ez kontuan izan gabe.

11.- Esleipendunak adeitasun eta errespetuzko tratuan oinarritutako hartu-emanak izango ditu zerbitzu erabiltzaileekin bereziki Gure Elkartea Jubilatuen elkarteko kideak direnekin, haiekiko jarrera lagunkorra izanez. Pertsonalgoa kontratatuko balu, langilegoak guztiz zuzen jokatu beharko du jendearekin.

12.- Esleipendunak Udalaren hizkuntza-jarduera arautzeko planen arabera jokatzea. Zentzu horretan, zerbitzua ematerakoan herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz gauzatuko ditu. Hots, esleitutako langileak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta zerbitzu-jasoleak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

13.- Esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz behintzat ezagutzera ematea eta, halabeharrez hizkuntza gehiagotan emango balitu, euskarari lehentasuna emanez.

14.- Esleipendunak Udalarekin dituen ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izatea.

15.-Tabernako salmenta prezioak (prezio orokorrak, jubilatuenak ez direnak) esleipendunak erabakiko ditu, baina herriko establezimenduetan ezarritakoen bataz bestera egokitu beharko dituztelarik, azken horiek ezingo direlarik gainditu. Jubilatuei dagozkien prezioen inguruan, Udalak hiru jubilatuen etxeekin adostuko dituen prezioak errespetatu beharko dira.

16.- Freskagarri eta jakien makinak jarri nahi izanez gero, zerbitzuak esleipendunak berak kudeatuko ditu, Udalak horretarako baimena eman ondoren.
17.- Ez ohiko ekitaldiak antolatu nahi izanez gero (jaialdiak, ihauteriak...) aurretiaz Udalari jakinarazi beharko zaio eta hauek egin ahal izango ditu Udalak horretarako baimena eman ondoren.

18.- Esleipendunari dagokio ondasun eta makineriaren mantenua eta baita mobiliario eta tresnena ere, bere kontura joango direlarik bere zabarkeriaz honda daitezkeen mobiliario eta tresnen ordezkapena.

19.- Esleipendunaren kargu dihoaz mantenu txiki guztiak (adibidez kisketa ez ibiltzea, bonbilak funditzea, hustubideen buxadurak...) Era berean, kontratuaren amaieran udalak jarritako ondasun guztiak kontserbazio egoera onean itzuli beharko ditu esleipendunak, erabilerarengatik izandako desgastea salbu.

20.- Udalak ordaintzeko betebeharra hartu duen fakturetaz arduratuko da. Beste fakturak esleipendunak ordaindu beharko ditu. Udalak oinarrizko horniduren fakturak (argia, ura eta estolderia, gasa eta hondakinak) ordainduko ditu, eta baita udalaren jabetzakoak diren etxetresna elektrikoen erosketatik datozenak ere, hauek erabileraren ondorioz hondatzen badira. Esleipendunaren erruz edo berari egotzi ahal zaion arrazoi bategatik hondatzen badira esleipendunak erosi beharko ditu berriak. Etxetresna elektrikoen konponketen kasuan, udalak 200 eurotik gorako konponketak ordainduko ditu. Kopuru horretatik beherako konponketa txikiak esleipendunak ordaindu beharko ditu.

21.- Instalakuntza eta osagaien mantenu gaietan legez eskatutako gutxiengoak betetzeaz arduratuko da esleipenduna, horretarako behar diren erakunde eta enpresa homologatuekin dagozkien mantenu eta berrikusketa kontratuen bidez (gastuak bere kontura izango dira).

22.- Greba edo itxiera patronalaren kasuetan, esleipendunak Aginteen eskuetan jarri beharko ditu zerbitzuko material eta osagai guztiak eta bere kargu hartu beharko du aipatu Aginteek prestakuntzarekin jarraitu ahal izateko izenda dezaketen langilegoa ere. Edozein kasutan ere, adierazitako ekintzak hasi aurretik gutxiengo 48 orduko aurrerapenez jakinarazi beharko dio Usurbilgo udalari.

23.-Kontratuaren exekuzioaren ondorioz hirugarrenei igorritako kalteak esleinpenduaren kargu izango dira. (SPKL-ko 196. artikuluan xedatutakoaren arabera).

24.- Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erreglamenduak xedaturikoa bete beharko du (ordutegi, zarata, isurketa eta ondasun baldintzei dagokienean).

25.- Tabernan edo Jangelaren aktibitatearen ondorioz sor daitezkeen hondakinak Udalak prestaturiko sistema, leku eta ordutegian atera beharko ditu esleipendunak derrigorrez ondo sailkatuta. Hau ez baldin bada betetzen, Usurbilgo udalerrian hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzan ezarritako zehapen prozedurak abiatuko dira.

26.- Gutxiengo **150.000 €** ardura zibileko asegurua egitea, kontratu gai den zerbitzua betetzerakoan eta, orokorrean, esleipendunari egozten zaizkion betebeharren eremuan hirugarren pertsonei eragin dakizkiekeen kalteen ordainei aurre egiteko.

27.- Esleipendunaren kargura izango dira, kontratu-gai den zerbitzua eskaintzeko bere jardueragatik ordaindu beharreko zerga, eskubide eta tasak, estatuko tributuak nahiz probintziakoak (baldintza plegu hauetan xedatutakoaren arabera Udalak ordainduko dituenak izan ezik).

28.- Kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak ezingo ditu berrakuratu, utzi, ezta eskualdatu ere esleipendunak Usurbilgo udalaren baimenik gabe. Udalak, baimen hori eman dezake horretarako lege baldintzak badaudela uste badu eta esleipendunak eskaintzen

dituen baldintzak kontsideratuz, zerbitzuaren eskualdaketari dagokion baimena emateko berme gehiago ere ezar ditzakeelarik.

29.- Kontratatutako epe barruan esleipendunak, aldaketak edota kontratista berriak, hasieran proposatutakoetatik desberdinak sartu nahiko balitu, esleitzailearen baimena lortu beharko du.

30.- Azpikontratazioa izendatzeak ez ditu esleipendunak adjudikatzailearekiko dituen betebeharrak gutxituko.

31. Usurbilgo udalak horretarako izendatutako pertsona baten bidez esleipendunaren esku dauden lan, material eta tresneriak arakatu nahiko balitu, esleipendunak horretarako baimena eman eta erraztasunak jarri beharko ditu .

32.- Esleipendunak edota tabernako pertsonalgoak janarien manipulatzaile txartelak eta jarduerari aplikagarri zaion legediak eskatutakoak bete beharko dituzte.

33.-Prezioen zerrenda beti erakusgai edukitzea (orokorra eta jubilatuei dagozkien prezioen zerrenda). Jubilatuei aplikatu beharreko prezioei dagokionean Udalak adostutakoak aplikatu beharko dira derrigorrez.

34.- Esleipedunarekin loturiko ondasun eta instalazioak ez zamatzea.

35.-Izan litezkeen ezintasun eta bateraezintasunak jakinaraztea, gertatzen direnetik 15 egun natural epean.

37.- Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu guztiak ordaintzea, besteak beste, Aldizkari Ofizialetan iragarkien sortutakoak eta hala badagokio, fidantzak jartzearen ondorioz eta eskritura publikoan, haren kopiez, kontratua formalizatzearen ondorioz sortutakoak.

38.- Legearen arabera, lizitazioak eta kontratuak sortzen dituen zerga guztiak ordaintzea.

39.- Eskatzen zaion idatzizko informazioa ematea, honako kontzeptuengatik: izandako diru-sarrerak, erabiltzaile-kopurua, gastuak, gertakizunak, jarduerak etab.

40.-Udalak ezarri, edota eskaintzan zehaztu eta udalak onartutako, ordutegian taberna zabalik eta jardueran edukitzea.

41.-Zerbitzuaren arduradun bat izendatzea, Usurbilgo Udalarekin harremanak mantentzeko.

42.- Esleipendunak obligazioa izango du bere telefonoa Udalaren ezagutzapean jartzeko.

43.- Esleipendunak komunak garbitu behar ditu eta beraien egoeraz arduratu. Edozein herritarrek izango du komun hauek erabiltzeko eskubidea. Esleipendunak horiek irekitzeko betebeharra edukiko du taberna zabalik dagoen ordu guztietan. Era berean, Udalak komun horien kudeaketaren inguruan emandako agindu eta irizpideak ere bete beharko ditu esleipendunak.

44.- Jantoki-taberna eta komunez gain,eraikinaren sarrera, barruko gela, almazenak, pasilloak, ataria, jubilatu elkarteko bulegoko gela eta sukaldea mantendu eta garbitu beharko ditu esleipendunak.

45.- Esleipedunari dagokio erabiltzen duen tresneria, materiala, altzariak etab. beti higiene eta garbitasun baldintza onetan edukitzea. Zentzu horretan, esleipedunari dagokio garbitasun produktuak bere kargura erostea.

46.- Esleipendunak egoitzako hainbat lokalen atezaintza lanak eraman beharko ditu aurrera, lokalak ireki eta itxiz beti ere Udala eta jubilatuekin adostuta.

47.- Esleipenduna pertsona juridikoa denean, kontratu-gai den zerbitzuarekin zerikusia duten helburu sozialak aldatuko balitu, aldakuntza horien notaritza agiria aurkeztu beharko dio Usurbilgo udalari gertakari hori suertatzen denetik hamabost egun naturaleko epean.

48.- Lan Sektorean, gizarte segurantzan, laneko segurtasunean zein higienean eta lan arriskuen prebentzioan indarrean dagoen araudia betetzea eta zehazki, indarrean dagoen lan hitzarmen sektoriala aplikatzea. Bere arlo eta erregulazio arauak ez betetzeagatik eta lan izaera duten gainontzeko urrapenetatik erator daitezkeen arduretatik kanpo geratuko delarik Usurbilgo udala.

49.- Kontratatutako zerbitzua behar bezala eskaintzeko eta balizko bajak eta oporrak betetzeko, behar beste langile kontratatzea zerbitzua ziurtatuta gera dadin.

14. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK

Esleipendunaren eskubideak izango dira ondorengo artikuluan jasotzen diren Usurbilgo udalaren betebeharretatik ondorioztatzen direnak.

15. USURBILGO UDALAREN BETEBEHARRAK

Usurbilgo udalaren betebeharrak izango dira, eta ondorioz esleipendunaren eskubide, honako hauek:

1.- Usurbilgo udalaren kontura joango da taberna funtzionamenduan jartzeko beharrezkoa den hornikuntza eta beharrezko mobiliarioaren erosketa (etxetresna elektrikoak batez ere, baldin eta hauek ez badira esleipendunaren erruz edo berari egotzi ahal zaion arrazoi bategatik hondatu, adibidez garbiketa faltagatik), eta esleipendunaren eskura jartzea. Bere jabetzakoak diren etxetresna elektrikoen konponketa handiak (200 eurotik gorakoak), Udalak ordainduko ditu.

2.- Eraikuntzaren kontserbazioa. Eraikuntzaren kontserbazioa bermatzeko beharrezko gastuak, orokorrean, Usurbilgo udalaren kargura joango dira (ez bazaizkio lokalaren jabeari egozgarriak. Kasu honetan honek ordainduko dituelarik). Hala ere, esleipendunaren kontura joango dira berari atxiki dakizkion arrazoiengatik ondoriozta daitezkeen kalteen kostuak, eta baita ere mantentze-konponketa gastu txikiak (200 eurotik beherakoak).

3.- Zerbitzuaren eskaintza egokia izan dadin gerta daitezkeen ezintasunetan laguntzea esleipendunari.

4.- Usurbilgo udalak, kontratua indarrean dagoen epean, lizitazio honetan jasotako lanak zein prestazioak, esleipenduna ez den beste inorekin ez kontzertatzeko konpromezua hartzen du, salbu eta, ezinbesteko egoerengatik edota aipatu esleipendunak betetzen ez delako, denboraldi baterako zerbitzuaren prestakuntza bere gain hartzera behartua aurkitzen denean.

5.- Eraikuntza, bere instalakuntzak eta mobiliarioa egoki deritzon kopuruetan aseguratzera behartua dago Usurbilgo udala, eta eraikuntza beraren eraginez sor daitezkeen kalteen erantzukizun zibilerako aseguru bat ituntzera.

6.- Jabearen erruagatik izan daitezkeenetatik aparte, interes publikoa izateagatik Usurbilgo udalak zerbitzuaren kudeaketa zuzenean bere gain hartzeak esleipendunari sor dakizkion kalte-galerengatik ordaintzea, hala dagokionean.

7.- Oinarrizko horniduren fakturak (argia, ura eta estolderia, gasa eta hondakinak) ordaintzea.

16. USURBILGO UDALAREN ESKUBIDEAK

1.- Araketa eta kontrola: Kontratu honetan exigitutako zerbitzuak bere osotasunean arakatuak izan daitezke Usurbilgo udalaren eskaeraz, hala nola, instalazioen funtzionamendua, barneko ordena, lokalen eta zerbitzuen garbitasuna, osasun baldintzak etab... Nolabaiteko urritasunik nabaritzen bada dagokion akta jasoko da.

2.- Usurbilgo udalak, bestela dagozkionen kaltetan gabe, honako ahalmen hauek izango ditu:

- Esleipendunaren kudeaketa fiskalizatzea, horretarako, zerbitzua, obrak, instalakuntzak eta lokalak eta kontratuaren gaiarekin zerikusia duten agiriak araka ditzakeelarik eta beharrezko prestakuntza mantentzeko edo birjartzeko aginduak eman ditzakeelarik.

- Esleipendunak, berari atxiki dakizkion arrazoiengatik ala beste batzurengatik zerbitzua eskaintzen ez duenean, zabarkeriaz eskaintzen duenean edota eskaini ezin dezakeenean, zerbitzuaren exekuzio zuzena hartzea denboraldi baterako. Era berean, Usurbilgo udalak esandako eran eskaintzeari uko egiten dioenean ere.

- Esleipendunari, izan ditzakeen urrapenengatik dagozkion zuzenketak ezartzea.

- Aurreikusita dauden arrazoiengatik kontratua iraungitzea.

17. MATERIALA

Usurbilgo udalak, zerbitzu eskaintze hau hasi aurretik, tabernako instalakuntza guztien funtzionamendu egokirako behar diren lanabes eta tresnak jarriak izango ditu (ikus inbentarioa).

Udalak beharrezko materiala jarriko du. Udalak beharrezkotzat jotzen duen materialaz gain esleipendunak beste gauza batzuk erosten baditu, edota ezarritakoak hobetzen dirua gastatzen badu Udalak ez dizkio gastu horiek ordainduko, bere kontura izango dira. Dena den, bere kontura erositako gauzak eraman ahal izango ditu zerbitzua emateari uzten dionean, baldin eta eramateko modukoak badira. Udalaren gauzetatik bereizi ezin badira, bertan geratuko dira, baina horregatik ez du inolako ordainketarik jasoko.

18. DEBEKUAK

1.- Adingabekoei alkoholdun edariak ateratzea debekaturik dago.

2.- Erabat debekatuta dago tabakoa eta legez kanpoko produktuak saltzea, bai zuzenean, bai zeharka.

3.- Txanpon-makinak eta tabako makinak ez dira onartuko.

4.- Kontratu honen gai diren instalakuntzetan edozein obra egitea debekatua dago, konponketa txiki eta kontserbazio lanak izan ezik, eta bere nortasunean eragina duten aldaketak ere ezingo dira sartu, udalaren baimen zehatz eta idatzizkorik gabe.

5.- Esleipendunak ezingo du zerbitzuaren irudiarekin publizitaterik egin erakunde esleipedunaren interes partikularretarako Udalaren baimenik gabe. Udalaren baimenarekin egin daitekeen publizitatean, beti adierazi beharko da zerbitzuaren Udal izaera. Edozein kasutan udal arauak errespetatuz egingo da publizitatea (ez sexista, ez iraingarria...).

19. ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Zerbitzua honako gutxieneko ordutegian eman beharko da:

-Astegunetan: arratsaldeko 16:00etatik 21:00etara irekita egon beharko da.

-Asteburu eta jai egunetan: goizeko 11:00etatik gaueko 21:00etara irekita egon beharko da.

Ordutegi horretatik kanpo, esleipendunak taberna irekita edukitzea erabakiko balu, Udalari eta jubilatu elkarteari jakinarazi beharko die haien oniritzia izan dezan.

Beti ere Gure elkartea jubilatu elkarteak eta udalaren artean auzoaren ezaugarriak eta jubilatu elkartearen dinamika zein den kontuan hartuta. Adostu ondoren herritarrei jakinaraziko zaie.

Egutegia:

- Astean lanegun bat taberna ixteko aukera izango du esleipendunak; hori Udala eta Gure Elkartea jubilatu elkartearekin adostuko da.

- Esleipendunak zerbitzua itxi ahal izango du, gehienez 22 lanegunez. Hala ere, ezingo da itxi auzoko jaiak direnean. Kontratua indarrean dagoen bitartean, itxialdi egutegia jubilatuen elkarteari eta udalari jakinarazi beharko zaio, azken honek baimendu dezan.

  *Opor egunetan kudeatzaileak jubilatu elkarteko ordezkariei haien gelatara sartzeko aukera ahalbidetu beharko die.

20. KONTRATAZIO MAHAIA

Usurbilgo udaleko kontratazio mahai iraunkorreko kideak hauek izango dira:

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa, Alkatea, Mahaiko Lehendakaria
   Ordezko lehendakaria, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Zerbitzuetako zinegotzia

2. Itziar Basterrika Unanue, arloko Zinegotzia, Bokala
   Ordezko Bokala, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Kirol, Hezkuntza eta Langilego Zinegotzia.

3. Garazi Etxeberria San Miguel, Udal Idazkaria, Bokala
   Ordezko Bokala Olatz de Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria.

4. Xabier Olano Jauregi, Udal Kontu-hartzailea, Bokala
   Ordezko Bokala, Gorka Lizarraga Erro Errenta Teknikaria.

5. Maria Salsamendi Luengo, arloko burua, Bokala
   Ordezko Bokala, Kontxi Zaldua Otegi

6. Olatz de Miguel Arnaiz,Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko idazkaria.
   Ordezko Idazkaria, Josune Iribar

IV. HUTSEGITE ETA ZIGORRAK

21.- HUTSEGITEAK

A) Hutsegite arinak izango dira:

a.- Esleipendunak bere obligazioak atzeratzea, bete behar dituenean.

b.- Udalak emandako jarraipideetan desobedientzia arinak.

c.- Gabezia arinak zerbitzua ematean, lekua behar bezala izatean, tresnak garbi izatean eta eraikinak eta altzariak erabiltzean.

d.- Erabiltzaileei zor zaien errespeturik eta arretarik ez izatea.

e.- Eskatutako datu eta informazioak ematean, atzeratu edo akatsak izatea, esleipendunari egotz dakizkiokeenak.

f.- Hainbat arrazoi dela-eta zerbitzuan gerta litezkeen aldaeren komunikazio falta, arinak direnean.

g.- Udalak emandako aginduak betetzean atzeratzea, beti ere atzeratze hori 24 ordutik gorakoa ez bada, eta hala bada, hutsegite larritzat hartuko litzateke hutsegitea.

i.- Erabiltzaileekin gizalegez ez jokatzea.

B) Hutsegite larriak izango dira:

a.- Hiru hutsegite arin aldi berean egitea, edo bi hilabeteko epean.

b.- Bere langileriaren portaeraren kontrola egitekoan, erabiltzaileei buruz nahiz udal araudia zorrotz betetzeari buruz, eta bereziki kontratu hau arautzen duten araudiari buruz, zabarkeriaz jokatzea.

c.- Esleipendunaren jardunak eraikinaren edo udal jabegoko ondasunen balio-galera ekartzea.

d.- Emandako zerbitzu publikoa behar bezala ez ematea, baldintza pleguak edo udal ordenantzan xedaturikoa urratuz.

e.- Kontratuaren objektuan jasota ez dagoen jarduera bat egitea.

f.- Adosten den ordutegia edo egutegia ez betetzea edo aurkeztutako proposamenean jasotako edozein baldintza (hobekuntzak barne) ez betetzea.

g.- Esleipendunaren oinarrizko betebeharren arau hauste larria.

h.- Kontratuan aipatzen diren lanak geldiarazi edo etetea hiru egunean, ezinbesteko arrazoirik ez badago.

i.- Erabiltzaileen eskubideak ez errespetatzea (hizkuntza eskubideen urraketa barne).

j.- Prezioen inguruan ezarritakoak ez errespetatzea.

k.- Prezio zerrendak une oro erakusgai ez izatea.

l.- Ordaindu beharreko kanona epez kanpo ordaintzea (hilaren lehenengo 10 egunak baino beranduago)

m.- Erreklamazio libururik ez izatea edo hau eskatutakoan ez ateratzea.

n.-Esleipendunak, pleguetan edo haren eskaintzan adierazitako edozein betebehar edo baldintza ez betetzea, orri honetan hutsegite arin edo oso larri moduan tipifikaturik ez daudenean.

C) Hutsegite oso larriak izango dira:

a.- Kontratatutako zerbitzuak ematen ez hastea udalarekin adostutako epean, ezinbesteko arrazoien ondorioz ez bada.

b.- Kontratatutako zerbitzuak geldiaraztea edo ez ematea hiru egun baino gehiagoko epean, ezinbesteko arrazoien ondorioz ez bada.

c.- Zerbitzua ematea pertsonen segurtasunari eragiteko moduko baldintzetan, arrisku larria eta zuzenekoa eragiten dutenean.

d.- Plegu hauetan xedatutako hizkuntza betebeharrak behin eta berriz urratzea.

e.- Ikuskatze zerbitzuen jarduerari uko egitea edo oztopoak jartzea, haiek ezarrita dituzten legez edo arauzko egitekoak burutu ditzaten galarazteko.

f.- Zerbitzua bertan behera utzi edo etetea, esleipenaren epea amaitu gabe egonda, Administrazioaren baimenik gabe.

g.- Kontratatu den zerbitzu publikokoak ez diren helburu eta xedeetarako jartzea zerbitzuari adskribatutako materialak, edozein modalitate edo titulupean, aurretik Udalaren baimenik izan gabe.

h.- Langilegoa, Gizarte Segurantza, edo Arriskuen Prebentzioari buruzko legedia ez errespetatzea zerbitzua ematerakoan.

i.- Bi hutsegite larri edo gehiago egitea.

j.- Hilabeteko epean kanona ez ordaintzea, hau da kanona dagokion hilaren hurrengoa hasi aurretik ez ordaintzea.

22.-ZIGORRAK

Esleipendunak egindako hutsegiteak dagokion udal organoak honela santzionatuko ditu:

- Hutsegite arinak 200 €tik 750 €tako isunaz zigortuko dira. Kontratua hautsi egingo da urte beraren barruan 15 hutsegite arin eginez gero.

- Hutsegite larriak 751 €tik 1.500 €tako isunaz zigortuko dira.

- Hutsegite oso larriak 1.501 €tik 3.000 €tako isunaz zigortuko dira.

Zigorrez gain, kalte-ordain bat ordaindu behar dio esleipendunak udalari, egin ez den zerbitzuaren balorazioari, aplikatu ez diren bitartekoei, eta abarrei dagokien zenbatekoaren truke.

Hutsegite larri edo oso larrien kasutan, udalak kontratua hautsi ahal izango du. Beraz, SPKLaren 211.1 f) artikuluaren aurreikusitako ondorioetarako funtzeko betebeharrak ez betetzea izango da, besteak beste, hutsegite larri edo oso larri moduan zerrendatutako jarrerak izatea. Gainera, funtzesko betebeharrak izango dira baita ere plegu hauen 13. klausulan ezarritakoak eta beraz hauek betetzen ez badira udalak kontratua hautsi ahal izango du.

Kontratatua hausten den kasuetarako, lokala utzi eta bertako gauza guztiak Udalaren esku laga beharko ditu, errekerimendua egiten den datatik hamabost egun naturaleko epearen barruan. Lokala uzten ez badu, hertsapenezko eta premiamenduzko neurri guztiak erabili ahal izango ditu Udalak.

V. BESTELAKO XEDAPENAK

23.-KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren lagapena edo azpikontratazioa egin ahal izango da, SPKL-eko 214 artikuluetan eta baldintza orrietan xedatutakoa bete beharko da.

24.-KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

SPKL-aren 211-213 artikuluetan xedatutakoak izango dira.

25.-JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote.

Kontratu honetako aldeen artean sortu litezkeen eztabaidak ebazteko ardura Administrazioarekiko Auzi-prozesuko Ordena izango da eskuduna, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratu Legeko 27.1 artikuluaren arabera.

Era berean, kontratutik ondorioztatzen diren liskarrezko kontuak administrazioarekiko auzialdiko epai-organoen aurrean aurkeztutzat joko diren arren, alderdiek erabaki ahal izango dute beraien arteko auziak arbitraian jartzea, indarrean dagoen legerian xedatuta dagoenaren arabera.

26.-ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu honen arabera egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du eta, bertan aurrikusirik ez dagoen guztian, hurrengoetara joko da:

1. Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoaren Kontratuen Legea, eta Lege honen aurka ez dagoen heinean oraindik indarrean dirauen urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.

2. Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen aurka ez doan heinean.

3. 1955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurka ez doan heinean.

4. Izaera osagarriz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, Zuzenbide Pribatukoak izango dira indarrekoak.

5. Klausula Administratibo Berezien Plegu hau eta espedienteari atxikita doakion gainontzeko dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik balego, Plegu honetan xedatutakoa nagusituko zaio beste guztiari.

6. Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamendua.

Usurbilgo Udala

I. ERANSKINA: Ardurapeko adierazpena (A gutunazalean)

“.....jaunak/andreak,NA.....zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), SANTUENEA TABERNAREN ERABILPENA ETA KUDEAKETA ZERBITZUAREN kontratazioa arautuko duen Baldintza Agiria eta gainerako baldintzak ezagututa

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.- Enpresa/Pertsona eskaintzaileak badauzkala kontratuaren xedea betetzeko beharrezko diren gaitasun juridikoa eta baliabideak.

II.- Bere kasun, sinatzaileak eskaintza aurkezten duen sozietatearen izenean jarduten duela eta sozietate horrek jarduera egiteko behar besteko baimenak dituela.

III.- Behean sinatzen duena eta bere kasuan ordezten duen enpresa ez daudela sartuta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluak aipatzen dituen bateraezintasun eta debeku egoera bakar batean ere.

IV.- Zerga eta Gizarte Segurantza obligazioak betetzen dituela, bai eta lan eta gizarte alorrean indarrean dauden xedapenak.

V.- Kontratuaren esleipenduna izatera iritsiko balitz, bere onespena ematen duela kontratuaren lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik ondorioztatuko datu guztiei gardentasun instituzionala emateko, harik eta prozesua amaitzen den arte.

VI.- Aurrekoez gain, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako bestelako baldintza guztiak betetzen dituela. Horri lotuta, baldintza horiek egiaztatzeko konpromisoa hartzen du eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztuz, esleipenduntzat proposatua den kasuan.

VII.- Atzerriko enpresaren kasuan, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegietako jurisdikzioaren pean jartzen dela, eta bere kasuan, egoki lekiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda.

VIII. – Honako hau dela jakinarazpenak egiteko nire posta elektronikoaren helbidea:

EMAIL:.....

DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA (*)

Esleipendun gisa proposatua izatekotan, Usurbilgo Udalari BAIMENA EMATEN DIO zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentalki egiaztatzea. Jarri X dagokion kasuan.

⁄⁄- Bai,
⁄⁄- Ez.

(*) Inolako aukerarik ez markatzekotan,ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimetzen.

SINATZEKO LEGE-GAITASUNA

Dokumentu hau sinatzeko lege-gaitasuna dudala aitortzen dut.

IZEN-ABIZENAK

SINADURA

N.A.N

DATA

Usurbilgo Udala

II. ERANSKINA: “C” GUTUN-AZALA IRIZPIDE AUTOMATIKOAK

*“..... jn./and.ak. ..... bizi delarik,.....posta kodea: ....., ... zk.ko NA-ren jabe, ... telefonoa duela,"**SANTUENEA TABERNAREN ERABILPENA ETA KUDEAKETAREN”** kontratazioa egiteko Usurbilgo Udalak deitu duen prozeduraz jabeturik, hurrengoa aitortzen dut:*

Markatu X batekin zure eskaintza

Kanona

Hilero 25€ko kanona eskaintzea	
Hilero 35€ko kanona eskaintzea	
Hilero 50€ko kanona eskaintzea	

Formakuntza

50- 289 ordu bitarteko sukaldaritzan/ostalaritzan formakuntza eskaintzen dudala	
290 orduko sukaldaritzan/ostalaritzan formakuntza eskaintzen dudala (edo 1.mailako ziurtagiria)	

** Formakuntza hau akreditatzen duen ziurtagiriak sartu beharko dira gutunazal honetan.*

Eguneko menua

Eguneko menua eskeiniz gero, jubilatuei guztira % 20ko deskontua eskaintzea	
Eguneko menua eskeiniz gero, jubilatuei guztira % 25ko deskontua eskaintzea	
Konbinatuak, bokadilloak gazteei (gazte-txartela) %5 merkeago eskeintzea*	

*3.honetan gehitutako puntuak eskuratzeko (gazteei beherapena), 1. edo 2n eskaintza egitea ezinbestekoa da.

Oporraldian irekitzea

5 egun gehiagotan irekita mantentzea	
10 egun gehiagotan irekita mantentzea	

Gainera hurrengoa adierazten dut:

1. Klausula Administratibo, Tekniko Berezien Pleguak, eta kontratu hau arautuko duen gainontzeko dokumentazioa ezagutzen dudala eta espreski onartzen dudala.

2. Nik neuk edo ordezkatzen dudan enpresak, irekitzeko, instalatzeko eta martxan jarduteko indarrean dagoen arautegiak xedatzen dituen betebeharrak betetzen dituela.

3. Aurkezten den pertsonalak pleguetan zehaztutako hizkuntza-baldintzak betetzen dituela, eta etorkizunean kontratatzen den pertsonalak baldintza hauek beteko dituela.

Usurbilen, 2021ko .....

Sinadura